



Iradokizunak
Udaletxearen barruan San Martineko baseliza erromanikoa ezkutatzeko da, Hagurain herritik azterna bakarra. Hau bisita gidatu baten bidez ezaugarri daitezke.



AGURAIN

Informazio orokorra. Arabako Lautada, bere zelai, landaketa eta perimetroa zehazten duten mendiekin, Erdi Aroan jatorria duten hERRI ugari izan dira. Hauetako batzuk merkataritza eta operotasun ekonomikoari esker hazi ziren, oso hERRI aktibo eta dinamiko bilakatu. Horieta bat Agurain izan zen, Gaztelako Alfonso X. Erregeak sortua, bere erresuma defendatzeko eta lurralde honetako merkataritza eta erromes bideak dinamizatzeko xedez.



Aguraingo hiribildu harresitua, Araban bere harresi-artearen bere historia propioa modu egokian kontserbatzen duen tokietako bat da. XVI. mendean sute handia pairatu zuen arren, oraindik ere mantentzen du bere Erdi Aroko egitura, baita harresiak eta elizak ere; San Juan eta Santa Maria eliza gotikoak, eta San Martineko baseliza erromaniko bitxia. Bere kaleak juregi barrok eta errenazentistaz beteri- daude, antzinako judu-auzoa ere badu, baita merkataritza-arako Olbea izeneko arkupe bereziak ere. Oraindik ere kaleak oso nabarmen mantentzen dute jaun-izaera. Bisita gidatuen ordutegia: 13:00etan. Igandero (eta uztailko eta abuztuako ostegunak) Arabako Lautada Eskualdeko Turismo Bulegoa: 945 302 931

AGURAINGO

HIRIBILDU HARRRESITUA



XI. mendeko dokumentuek eremu honetan zegoen "Hagurain" izeneko herrixka txiki baten inguruko informazioa ematen digute. 50 biztanle inguru zituen, eta estrategikoki oso kokapen egokia zeukan Gaztelako Alfonso X. Erregeak bertan hiribildu harresitu aberatsa sortu zuen. Nafarroako Erresumako mugatik kilometro gutxira, eta merkataritza eta erromes bideen erdi erdian Salvaterrako herriak garapen izugarria bizi izan zuen mendeetan zehar, eta horren isla gaur egun arte mantendu diren hiribilduko kaleetan eta hauetan dauden eraikin zibil eta erlijiosoetan ikus dezakegu.

Bisita gidatu panoramikoaren bidez, bisitariak bi elizen handitasuna antzeman ahal izango du: Santa Maria eta San Juan. Lehenengoa eraikin gotikoa da, eta barrualdean Arabako koru-plateresko nabarmenetakoa dauka. Bere erretaula, Lope de Larrea eskultore aguraindarrak egina, XVI. mendeko tokiko artisten lan esanguratsuenetakoa da. San Juan eliza, eliza-gotorleku moduan egina, bere atari barrokoaren handitasunarekin herriko plaza garrantzitsuenetako batean nabarmentzen da. Bere erronda-bidea oso ikuspegi panoramikoak ditu, aurrean Aratz-Aizkorri parke naturala duela.



Bere kaleetan barrena paseatuz testigantza historiko ugari topa ditzakegu, esaterako, "Olbea" ospetsuak, kale arkupedun luzeak merkatariek eguraldi txarraz babesteko erabiltzen zituztenak.



Antzineko judu-auzoa, gainerako kaleetatik bereziturik zegoen, eta sartzeko atari propioa zeukan, harresiak jatorrian zeuzkan zazpi ateetatik kontserbatzen den bat izanik.



Aguraingo harresien artean paseatuz, XVII eta XVIII mendeetako jauregi eta nobleziaren etxe armarridun eta interesgarri ugari ikus daitezke, Aro Modernoan herriak zuen garrantzia erakusten digutenak.

BISITA GIDATUEN ORDUTEGIA:

Igandero (eta uztaileko eta abuztuko ostegunak) 13:00etan.



Informazio gehiago, taldeko bisitak eta erreserbak:
Arabako Lautada Eskualdeko Turismo Bulegoa:
945 302 931